

Mutiko batek Enekor:

– Zure kometa trukatu nahi duzuia? Ene futboleko baloia emaiten dizut. 50

Baina Enekok erantzun zuen:

– Ez! Ez! Ez dut ene kometa trukatuko.

Kometa ttipi-ttipi ageri zen zeruan. Orduan Enekok kometaren asmoa ulertu zuen. Polliki-polliki, kometaren haria libratu zuen. 55
Kometa gero eta gorago zen. Laino artean gorde zen. Kometa munduan gaindi abiatu zen...

Ipuin herrikoa.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Kartoiaren ametsa zer da?
- Zer egin nahi du mutikoak kartoiaz?
- Nola egiten du jostailua mutikoak?
- Zer egin nahi du Enekoren lagunak?
- Zergatik Enekok moztan du soka? Kometa bozik ote da?
- Enekok bere kometa maite zuen. Zertarik ageri da?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Lehen lerroari begiratu eta, beste lerroak idatz itzazu.

Bizarra	duena	<i>bizarduna da.</i>
Xapela	duena	<i>xapelduna da.</i>
Makila	duena	<i>makí..... da.</i>
Euskara	duena
Muztatxa	duena

- Bi hitz lotuz, hitz berriak asma eta idatz itzazu.

josta **ibil** **zain** **aldi**

joka **lari** **solas**

molde **leku** **bide** **jan**